BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2342

AGINDUA, 2014ko maiatzaren 6koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Larrabetzu udalerriko (Bizkaia) «Larrabetzu» Oinarrizko Mailako Musika Ikastetxe Baimenduaren titulartasuna aldatzeko baimena emateko dena.

Aztertuta geratu da Bizkaiko Larrabetzu udalerriko «Larrabetzu» Oinarrizko Mailako Musika Ikastetxe Baimenduak titulartasuna aldatzeko baimena eskatuz abiarazi duen espedientea.

Espediente hori Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritzak izapidetu du, indarreko arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek horri buruzko txostena eman dute.

Arau hauek ikusi dira: Irakaskuntza artistikoak emateko, ikastetxe pribatuei baimenak emateari buruzko otsailaren 25eko 321/1994 Errege Dekretua (apirilaren 6ko BOE), eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako legeak. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– «Larrabetzu» Oinarrizko Mailako Musika Ikastetxe Baimenduaren titulartasuna aldatzeko baimena ematea: egun titulartasuna Teresa Loroño Elguezabal andreak du eta aurrerantzean «Larrabetzu Musika Eskola, S.L.» sozietateak izango du; berak subrogatuko ditu ikastetxearen betebehar eta zama guztiak. Ikastetxe horren helbidea da Errebale kalea 7 - behea, Larrabetzu udalerria (Bizkaia), eta kode-zenbakia 48011445.

2. artikulua.– Titulartasun-aldaketa Ikastetxeen Erregistroan inskribatuko da, baina horrek ez du inolako eraginik izango ikastetxearen ohiko jardunean.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko maiatzaren 6a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.